

2019ko AZAROAREN 28an UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA **17 zk.**

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2019ko azaroaren 28an, arratsaldeko zazpitan, Udaltzarrak bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ohiko bilkura egiteko xedez.

Honako zinegotzi hauek bertaratu dira:

Batzarburua	Xabier Txurruka Fernandez jn.
Bertaratutako zinegotziak	Miren Letamendia Belloso and. Jesus Arana Gomez jn. Iratxe Zorrozueta Eguiazabal and. Iban San Martin Hernandez jn. Leire Arana Olabarrieta and. Ixidor Larrañaga Ayerbe jn. Jon Andoni Urdangarin Urrutia jn. Iker Basurko De Miguel jn. Irene Urbietta Alberdi and. Itziar Murua Uria and. Ion Arozena Eizagirre jn. Ainara Landa Argote and. Begoña Olaizola Elordi and. Xabier Etxaburu Elu jn. Jesus Goikoetxea Balentziaga jn. Eider Illaramendi Azkue and. Gloria Vazquez Herranz and. Patxi Elola Azpeitia jn. Oihane Delgado Pita ad.
Ez da etorri	Mikel Goenaga Gubia jn.
Idazkaria	Ines Diaz de Villafranca Arzamendi and.
Kontu-hartzailea	Karmele Lizaso Ubera and.

Bilkurari hasiera emanda, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatu ditu Udaltzarrak.

GAI-ZERRENDA

1.- 2019ko IRAILAREN 26ko BILKURAREN AKTA ONARTZEA.

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

2.- ALKATETZAREN DEKRETUEN KONTROLA:

– 2019ko urriaren 28tik azaroaren 22ra.

Segidan, Alkatetzak 2019ko urriaren 28tik azaroaren 22ra erabakitako dekretuen berri izan du Udalbatzak.

3.- TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN ERABAKIEN KONTROLA:

– 2019ko urriaren 28tik azaroaren 18ra.

Era berean, Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko urriaren 28tik azaroaren 18ra hartutako erabakien berri izan du Udalbatzak.

4.- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA ZARAUZKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENAK, ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA ETA JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA KUDEATZEKO.

2019BBBB0003 espedientea

Akordio-proposamena irakurri ondoren, eguneko aztergai hau hizpide hartuta udal taldeek beren iritzia emateari ekin diote. Ondoren, proposamena bozkatu dute, emaitza honekin:

Botoak alde:	19	(10 EAJ-PNV, 7 EH Bildu, 2 PSE-EE)
Botoak aurka	–	
Abstentzioak:	1	(1 Podemos-Equo Berdeak)

Beraz, adierazitako gehiengoarekin, Udalbatzarrak erabaki hau hartu du:

“1994ko urriaren 18an egindako bilkuran, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluak hitzarmen-eredu batzuk onartu zituen, Gipuzkoako udalek delegazio eta/edo lankidetzara maila desberdinen artean aukeratu ahal izan zezaten, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren eta Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren kudeaketan.

Egin beharreko tramiteak bete ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Zarauzko Udalak hitzarmenak sinatu zituzten (erabaki hartako II. eta VI. eranskin modura jasotakoak).

Bestalde, 2011ko abenduaren 13ko bilkuran, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluak hitzarmen-eredu berriak onartu zituen Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga kudeatzeko; helburua zen hitzarmenen edukia udalek adierazitako eskakizunetara eta indarreko araudira egokitzea.

Diputatuen Kontseiluaren erabaki horren hirugarren puntuan jasotakoaren arabera, hitzarmena sinatuta zuten udalak automatikoki subrogatuko ziren hitzarmen berriarekin (eredu berrian jasotako baliokidetasun-taularen arabera zegokiena), betiere udalek beste eredu bati atxikitzea onartzen ez bazuten, erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hilabeteko epean.

Prozesu hori amaitzeko, Gipuzkoako udalekin sinatuta eta indarrean zeuden hitzarmenen zerrenda onartu zen (Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga kudeatzekoak), Ogasun eta Finantzetako foru diputatuaren otsailaren 8ko 126/2012 Foru Aginduaren bitartez.

Gauzak horrela, hauek dira Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Zarauzko Udalaren artean indarrean dauden hitzarmenak, aipatutako zergak kudeatzeko:

- Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga kudeatzeko: Lankidetzaren delegazioa, borondatezko bidean; eta delegazioa, bide exekutiboan (Gipuzkoako Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluaren 1994ko urriaren 18ko Erabakiaren II. eranskina).
- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga kudeatzeko: Lankidetzaren delegazioa, zergaren kudeaketan; eta delegazioa, epe exekutiboko zerga-biketan (Gipuzkoako Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluak 2011ko abenduaren 13ko bilkuran onartutako 2. eredu).

Hitzarmenetan jarritakoaren arabera, horien indarraldia urtez urte luzatuko da. Dena den, alderen batek hitzarmena denuntziatu nahi izanez gero, beste aldeari berariaz adierazi beharko dio, hitzarmenaren indarraldia amaitu aurreko azaroa baino lehen.

Udalaren nahia da sinatutako hitzarmenetan jarritako lankidetzaren eta/edo delegazio maila aldatzea, eta horretarako beharrezkoa da indarrean dauden hitzarmenak denuntziatzea eta hitzarmen berriak sinatzea.

Nahiz eta Zarauzko Udalak egiaztatu duen Foru Aldundiak onartutako indarreko hitzarmenen ereduak ez daudela egokituta urriaren 1eko 40/2015 Legea (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoa), horiek sinatu beharra dauka, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera delegazio berriak indarrean egon daitezela. Horrenbestez, botoen gehiengoarekin, Udalbatzarrak honako hau

ERABAKI DU

Lehena.- Foru Aldundiarekin sinatuta dauden hitzarmenak denuntziatzea (Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga kudeatzekoak).

Bigarrena.- Beste hitzarmen hauen sinadura onartzea, denuntziatutakoaren ordeztuz:

- Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga kudeatzeko: Lankidetzaren delegazioa (Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluaren 1994ko urriaren 18ko Erabakiaren I. eranskina)
- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga kudeatzeko: Lankidetzaren delegazioa (Foru Gobernuaren Kontseiluak 2011ko abenduaren 13ko bilkuran onartutako 1. eredu)

Hirugarrena.- Alkate-batzarburuari ahalmena ematea hitzarmenak sinatzeko, Zarauzko Udalaren izenean eta ordeztuz.

Laugarrena.- Erabaki honen berri ematea Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantzaketako Departamentuari.”

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA ZARAUZKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA ONDASUN HIGIEZINAREN GAINEKO ZERGA KUDEATZEKO: LANKIDETZA - ESKUORDETZA.

Donostian, 2019ko _____ (e)an

E L K A R T U R I K :

Batetik, Gipuzkoako Foru Aldundiaren izenean Jabier Larrañaga Garmendia jauna, Ogasun eta Finantzaketako foru diputatua, eta bestetik, Xabier Txurruka Fernandez andrea / jauna, Zarauzko Udaleko alkate lehendakaria.

A D I E R A Z T E N D U T E :

Gipuzkoako lurralde historikoko Batzar Nagusiek, Euskadiko Autonomia Estatutuaren 41.2 a) artikuluan xedatutakoari jarraituz eta Ekonomia Ituneko 2. artikuluan emandako eskumenez baliatuz Udal Ogasunak arautzen dituen Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Araua eta Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren uztailaren 5eko 12/1989 Foru Araua onartu zituzten.

Toki Ogasunei buruzko 11/1989 Foru Arauak, 7. artikuluan, Gipuzkoako udalei esleitzen dizkie beren tributuak ordainarazi, kudeatu, likidatu, ikuskatu eta biltzeko ahalmenak, betiere, udal zergen foru arau erregulatuaz eta horiek garatzeko gainerako xedapenetan ezar daitezkeen berezitasunak eragotzi gabe.

Bestalde, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren 12/1989 Foru Arauak, 19. artikuluan, Zergaren kudeaketari dagokionean, Foru Aldundiaren eta udalen arteko eskumeneren banaketa zehazten du.

Horrela, Gipuzkoako Foru Aldundiari eskumen hauek dagozkie:

- Balio ponentziak egin eta onartzea.
- Katastro balioak finkatu, berrikusi eta aldatzea.
- Zergaren Erroldaren eraketa, berrikuspen, kontserbazio eta gainerako eginkizunak burutzeko.
- Kobrantzako ordainagiriak egitea
- Katastro-ikuskapena
- Salbuespen eta hobariak eman eta ukatzeko aurretiazko txosten teknikoak egitea.

Udalari, berriz, eskumen hauek dagozkie:

- Altak eta bajak tramitatu eta likidatzea.
- Errekurtso eta erreklamazioak ebatzea.
- Zerga kobratzea
- Salbuespenak eta hobariak aplikatzea
- Zergapetze tasa finkatzea, Zerga arautzen duen Foru Arauaren 14. artikuluan xedatutakoaren arabera.
- Zergarekin lotutako gaiei buruz zergadunak eska dezakeen laguntza eta informazioa ematea.
- Foru Aldundiarekin elkarrekin lan egin katastroa egin eta kontserbatzeko.
- Eta orokorrean, Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzko 11/1989 Foru Arauaren II Tituluko III Kapituluaren adierazten diren gainerako eskumenak.

Foru Aldundiaren eta udalen arteko lankidetzak ezinbestekoa da bakoitzak bere eginbeharrak zuzen betetzeko. Nork bere egitekoak egoki betetzeko ezinbestekoa da elkarren arteko lankidetzak zehaztea, hots, informazioa trukitzea eta elkarri laguntza ematea nola egingo den zehaztea. Hori guztia Toki Ogasunei buruzko 11/1989 Foru Arauak, 8. artikuluan, dioenari jarraituz bete daiteke, zeren eta zergaren kudeaketa, likidazio, ikuskapena eta zerga-bilketarako hitzarmena sinatzea aurreikusten baitu.

Alde biek uste dute Gipuzkoako Foru Aldundia altak eta aldaketa fisiko, ekonomiko edo juridikoak izapidetu eta likidatzeko eskumenez baliatuz gero, Zergaren kudeaketa koordinatuagoa litzatekeela lurralde historiko osoan, zergadunen betebeharrak formalak erraztuko litzatekeela.

Orain arte azaldutakoa kontuan izanik, Foru Aldundiak eta Zarauzko Udalak

E R A B A K I T Z E N D U T E :

Hitzarmen hau egitea, ondorengo **OINARRIEKIN**

Lehena.- Hitzarmenaren xedea.

Hauek dira hitzarmen honen xedeak:

- 1.- Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren 12/1989 Foru Arauaren 19. artikulua, 1. eta 2. ataletan, Zarauzko Udalar (Udala aurrerantzean) Zergaren altak eta aldaketa fisiko, ekonomiko edo juridikoak izapidetzeko emandako eskumenak Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku uztea.
- 2.- Hitzarmena sinatzen duten instituzioei Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren 12/1989 Foru Arauak esleitzen dizkien gainerako eskumenak zuzen bete eta kudeatzeko lankidetzak moduak finkatzea, betiere, Gipuzkoako udalerriei indarrean dagoen araudiak onartzen dien udal autonomia kontuan izanik.

Bigarrena.- Dokumentazioa hartzea eta jakinarazpenak egitea.

Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia –Zerga Bulegoen bitartez– subjektu pasiboek aurkezten duten dokumentazio orori sarrera emateko organo eskudunak izango dira, baita jakinarazpenak egiteko ere, betiere, Gipuzkoako Foru Aldundiak dituen eskumen hauei kalterik egin gabe: Hiri eta Landa izaerako Higiezinaren Katastroak irauterazi eta aldatzea, balio ponentzia egitea, hiri izaerako lurra mugatzea eta altak eta aldaketa fisiko, ekonomiko edo juridikoak izapidetzea.

Hirugarrena.- Zergapetze tasa zehaztea.

Udalak zergari buruzko behin betiko Ordenantza Fiskala onartzen duen, edo hori aldatzen duen, erabakiaren kopia egiaztatzailea bidaliko dio Ogasun eta Finantza Departamentuari, erabakia hartu eta hurrengo hilean edo, nolana ere, behin betiko onarpena hartzen deneko hurrengo urteko urtarilaren 30a baino lehen.

Laugarrena.- Onura fiskalak onartzea.

Onura fiskalak jasotzeko eskaera, alta aitortpenarekin batera egiten bada, Foru Aldundian aurkeztu beharko da. Foru Aldundiak, agiriak jaso eta hilabeteko epean, Udalara bidaliko ditu eskaeraren kopia eta Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren 12/1989 Foru Arauaren 19.3 artikuluan aurreikusitako txosten teknikoak.

Udalak onura fiskalen buruzko eskaera ebartzeko du eta zergadunari nahiz Foru Aldundiari, ohartemateko, jakinaraziko die.

Zerga onurak jasotzeko eskaera alta aitortpenarekin batera ez bada egiten, Udalar aurkeztu ahal izango zaio. Udalak onura jasotzeko eskaera ebartzeko zergadunari nahiz Foru Aldundiari, ohartemateko, jakinaraziko die. Halere, onura jasotzeko eskaera ebartzeko aurretik Udalak eskaera bidaliko dio Foru Aldundiari txosten teknikoak egin dezan, agiriak jaso eta hilabeteko epean.

Foru Aldundiak ezin badu ebazpenaren aurreko txosten teknikoa egin, dokumentazioa osatu gabe dagoelako edo beste edozein arrazoiengatik, hala adieraziko dio Udalari txosten teknikoa ez egiteko arrazoia zein den zehaztuz.

Udalak emandako onura fiskalak ondorioak izango dituzte Foru Aldundiaren aurrean ohartemateko jakinarazten zaion egunetik aurrera.

Bosgarrena.- Alten eta aldaketa fisiko, ekonomiko edo juridikoen informazioa.

Foru Ogasunak hileru bidaliko dio Udalari aurreko hilean eginiko alten eta aldaketa fisiko, ekonomiko edo juridikoen informazioa, baita irekitako katastroko fitxen kopia ere.

Seigarrena.- Jakinarazpenak egiteko epeak.

Udalak Zergaren inguruan egiten dituen izapide edo egintza oro Ogasun eta Finantza departamentuari jakinarazi beharko dizkio izapide edo egintza horiek egiten diren hila amaitu eta hamabost eguneko epean, eta nolana ere, urteko azken hilean egindako izapide eta egintzak badira, hurrengo urteko urtarrilaren 30a baino lehen.

Zazpigarrena.- Errekurtsoen ebazpena.

Norbaitek errekurtsua aurkezten badu, Udalak edo Foru Aldundiak, Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzko 11/1989 Foru Arauan eta Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren 12/1989 Foru Arauan xedatutakoari jarraituz gaiaren arabera ebazpena ematea beraietako zeini dagokion zehazten duen txostena aurretik egin beharko dute. Ebazpena ematea ez badagokio, jakinarazpen arrunta bidaliko dio ebazpena ematea dagokion organoari edo, bestela, hala egitea dagokiola uste badu, errekurtsua ebatziko du eta, horren ondoren, ebazpena jakinaraziko du.

Zortzigarrena.- Errolda egitea.

Ogasun eta Finantza departamentuak zergaren errolda prestatuko du urtero eta Udalari bidaliko dio ordainagiriak kobratzeko aldia iritsi aurretik.

Bederatzigarrena.- Informatika aplikazioan sartzea.

Udalerriko ondasunen informazioari dagokionean, Udalak Zergaren kudeaketarako informatika aplikazioan sartu ahal izango da eta zerga nahiz jakinarazpen ondorioetarako helbideak aldatu ahal izango ditu, baita ordainagiriak kobratzeko banku helbideratzeak egin ere.

Hamargarrena.- Kobrantzazko ordainagiriak egitea.

Behin zergaren errolda onartuta eta, badagokio, aurkez daitezkeen erreklamazioak aurrez ebatzita, Gipuzkoako Foru Aldundiak ordainagiriak, kanpainaren karguzko zinta magnetikoak eta kobrantzazko zerrendak prestatuko ditu. Horiek guztiak Udalari bidali beharko dizkio abuztuaren 20a baino lehen.

Hamaikagarrena.- Ikuskatzaitza lanetarako lankidetzak.

Foru Aldundiak nahiz Udalak elkarrekin edo elkarri lagunduaz ikuskapen planak egin ahal izango dituzte helburu, sektore eta jardunbide jakin batzuetarako. Ikuskapen planak hitzarmena sinatzen duen edozein alde eskatuta egingo dira.

Udalaren edo Foru Aldundiaren zerga ikuskapen edo kudeaketa zerbitzuek egindako egiaztapen edo ikerketa jardueren ondorioz, zergaren ikuspegitik Udalarentzat edo Aldundiarentzat garrantzitsuak izan daitezkeen egintzak agertzen badira, horien berri emango diote elkarri bi alderdiek beren zerbitzupeko zehaztutako pertsonal teknikoaren bitartez.

Hamabigarrena.- Aldeen arteko interkomunikazioa.

Ogasun eta Finantza Departamentuak eta Udalak elkarri jakinaraziko diote beraien arteko bitartekari lanerako izendatu duten pertsona edo organoa zein den. Horien bitartez zergetarako eta laguntza teknikorako garrantzia izango duen eskatutako informazioa elkarri emango diote, bai eta, hitzarmenaren ondorioz, sortzen den informazio eta korrespondentzia elkarri zentralizatu eta banatuko ere.

Hamahirugarrena.- Katastroa.

Udalak Foru Aldundiarekin batera lan egingo du katastroa osatu eta iraunarazteko.

Hamalagarrena.- Hitzarmenaren indarraldia.

Hitzarmen honek urtebeteko indarraldia izango du, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Hasierako epea amaitzerakoan urteko epez luzatuko da hitzarmenaren indarraldia, baldin eta bi instituzioetako organo eskudunek esanbidezko salaketarik egiten ez badute. Salaketa edozein unetan egin ahal izango dute, eta egin deneko dataren hurrengo ekitalditik aurrera izango du ondorioa, betiere beste alderdiari indarraldia amaitu aurreko azaroa baino lehen jakinarazten bazaio.

Bi aldeek adostasuna agertzeko eta behar bezala jasota gera dadin hitzarmenaren bi ale sinatzen dute hasieran adierazitako datan eta lekuan.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA ZARAUZKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA KUDEATZEKO: LANKIDETZA - ESKUORDETZA.

Donostian, 2015eko _____ren __ (e)an.

E L K A R T U R I K :

Batetik, Gipuzkoako Foru Aldundiaren izenean Jabier Larrañaga Garmendia jauna, Ogasun eta Finantzeta foru diputatua, eta bestetik, Xabier Txurruka Fernandez jauna, Zarauzko Udaleko alkate lehendakaria.

A D I E R A Z T E N D U T E :

Gipuzkoako lurralde historikoko Batzar Nagusiek, Euskadiko Autonomia Estatutuaren 41.2a) artikuluan xedatutakoari jarraituz eta Ekonomia Ituneko 2. artikulua emandako eskumenez baliatuz Udal Ogasunak arautzen dituen Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Araua onartu zuten.

Bestalde, Gipuzkoako Lurralde Historikorako 1993ko aurrekontua onartu zuen otsailaren 17ko 1/1993 Foru Arauak bigarren xedapen gehigarrian adierazitakoari jarraituz, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren testu bategina onartu zuen, apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretu Arauemailearen bitartez.

Toki Ogasunei buruzko 11/1989 Foru Arauak, 7. artikuluan, Gipuzkoako udalei esleitzen dizkie beren tributua ordainarazi, kudeatu, likidatu, ikuskatu eta biltzeko ahalmenak, betiere, udal zergen foru arau erregulatzailerekin eta horiek garatzeko gainerako xedapenetan ezar daitezkeen berezitasunak eragotzi gabe.

Bestalde, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren testu bateginak, 15 artikuluan, Foru Aldundiaren eta udalen arteko eskumen banaketa zehazten du, zergaren kudeaketari dagokionez.

Foru Aldundiaren eta udalen arteko lankidetzaren ezinbestekoa da bakoitzak bere eginbeharrak zuzen betetzeko. Nork bere egitekoak egoki betetzeko ezinbestekoa da elkarren arteko lankidetzaren zehaztea, hots, informazioa trukatea eta elkarri laguntza ematea nola egingo den zehaztea. Hori guztia Toki Ogasunei buruzko 11/1989 Foru Arauak, 8. artikuluan, dioenari jarraituz bete daiteke, zeren eta zergaren kudeaketa, likidazio, ikuskapena eta bilketarako hitzarmena sinatzea aurreikusten baitu.

Alde biek uste dute Gipuzkoako Foru Aldundia ofiziozko altak izapidetu eta likidatzeko eta aldaketa eta baja aitortzeko eskumenez baliatuz gero, Zergaren kudeaketa koordinatuagoa litzatekeela lurralde historiko osoan, zergadunen betebeharrak formalak erraztuko litzatekeela.

Orain arte azalduakoa kontuan izanik, Foru Aldundiak eta Zarauzko Udalak,

E R A B A K I T Z E N D U T E :

Hitzarmen hau egitea, ondorengo **OINARRIEKIN**

Lehena.- Hitzarmenaren xedea.

Hauek dira hitzarmen honen xedeak:

1. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren testu bateginak, 15.1 artikuluan, xedatutakoaren arabera, Zarauzko Udalerri (aurrerantzean Udala) ofiziozko altak izapidetu eta likidatzeko nahiz aldaketa eta baja aitortzeko izapidetzeko emandako eskumenak Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku uztea.
2. Hitzarmena sinatzen duten erakundeei Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren testu bateginak esleitzen dizkien gainerako eskumenak zuzen bete eta kudeatzeko lankidetzaren moduak finkatzea, betiere Gipuzkoako udalerriekin indarrean dagoen araudiak onartzen diren udal autonomia kontuan izanik.

Bigarrena.- Dokumentazioa hartzea eta jakinarazpenak egitea.

Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia –Zerga Bulegoen bitartez– subjektu pasiboek aurkezten duten dokumentazio orori sarrera emateko organo eskudunak izango dira, baita jakinarazpenak egiteko ere, betiere, Gipuzkoako Foru Aldundiak dituen eskumen hauei kalterik egin gabe: alta, aldaketa eta baja aitortpenak, matrikula eratu eta artatzea, eta jarduera ekonomikoak kalifikatzea.

Hirugarrena.- Koefiziente eta indizeak zehaztea.

Udalak zergari buruzko behin betiko Ordenantza Fiskala onartzen duen, edo hori aldatzen duen, erabakiaren kopia egiaztatzailea bidaliko dio Ogasun eta Finantza Departamentuari, finkatzen diren koefizienteak eta indizeak adieraziz, erabakia hartu eta ondorengo hilean edo, nolana ere, behin betiko onarpena hartu ondorengo urteko urtarrilaren 30aren aurretik.

Laugarrena.- Zerga onurak aitortzea.

Zerga onura jasotzeko eskaera alta aitortpenarekin batera egiten bada, Foru Aldundian aurkeztu beharko da. Foru Aldundiak eskaeraren kopia bidaliko dio Udalari hilabeteko epean.

Eskaera salbuespena aitortzekoa den kasuetan, eskaerarekin batera Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren testu bateginaren 15.5 artikuluan aurreikusten den txosten teknikoa igorriko da.

Udalak salbuespena edo hobaria jasotzeko buruzko eskaera ebatziko du eta zergadunari nahiz Foru Aldundiari, ohartemateko, jakinaraziko die.

Zerga onurak jasotzeko eskaera alta aitortpenarekin batera ez bada egiten, Udalari aurkeztu ahal izango zaio. Udalak onura jasotzeko eskaera ebatzi eta zergadunari nahiz Foru Aldundiari, ohartemateko, jakinaraziko die.

Halere, salbuespen kasuetan, eskaera ebatzi aurretik Udalak eskaera Foru Aldundiari bidaliko dio aipatutako epean derrigorrezko txosten teknikoa igorri dezan.

Foru Aldundiak Udalari ezin badio epe barruan bidali ebazpenaren aurreko txosten teknikoa, dokumentazioa osatu gabe dagoelako edo beste edozein arrazoiengatik, hala adieraziko dio Udalari eta txostena ez bidaltzearen arrazoia zein den zehaztuko dio.

Udalak emandako onura fiskalak ondorioak izango dituzte Foru Aldundiaren aurrean ohartemateko jakinarazten zaion egunetik aurrera.

Bosgarrena.- Alta, aldaketa eta bajei buruzko informazioa.

Foru Aldundiak hilerik bidaliko dio Udalari, jarduera udalerrian duten subjektu pasiboen zerrenda, zergaren matrikulan izandako alta, baja edo aldaketen berri emanez. Zerrenda horretan subjektu pasiboaren nortasun eta jardueraren datuak adieraziko dira.

Udalari hiruhilekoan behin bidaliko zaio egindako likidazioen zerrenda.

Seigarrena.- Jakinarazpenak egiteko epeak.

Udalak zergaren inguruan egiten dituen izapide edo egintza oro Ogasun eta Finantza Departamentuari komunikatu beharko dio izapide edo egintza horiek hasi ziren hilabetea amaitu ondorengo hamabost eguneko epean eta, nolana ere, urteko azken hilabetean egindako izapide edo egintzak badira, ondorengo urteko urtarrilaren 30aren aurretik.

Zazpigarrena.- Errekurtsoen ebazpena.

Errekurtso bat aurkeztuz gero, Udalak edo Foru Aldundiak, gaiaren arabera, jakinarazpen soil bat bidaliko dio ebazpena ematea dagokion organoari edo, bestela, hala egitea dagokiola uste badu, errekurtsoa ebatziko du eta, horren ondoren, ebazpena jakinaraziko du.

Zortzigarrena.- Matrikula egitea.

Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren testu bateginak 14.1 eta 17. artikuluetan xedatutakoari jarraituz Gipuzkoako Foru Aldundiak urtero zergaren matrikula prestatuko du, eta Udalari bidaliko dio ordainagiriak kobratu aurretik.

Bederatzigarrena.- Informatikako aplikazioan sartzea.

Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren testu bateginak 14.3 artikuluan xedatutakoari jarraituz, Gipuzkoako Foru Aldundiak Udalarari bermatuko dio, beti, udalerriko jarduera ekonomikoen zentsu informazio guztia eskuratzeko aukera.

Horretarako, Udalak Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga kudeatzeko erabiltzen den aplikazio informatikora sarbidea izango du. Udalerriko jarduera ekonomiko guztien informazio osoa izango du Udalak: udal eremukoena, probintzia eremukoena eta estatu eremukoena. Era berean, banku helbideratzeak egin ahal izango ditu ordainagiriak kobratzeko.

Hamargarrena.- Kobrantza ordainagiriak egitea.

Ordainagiriak Gipuzkoako Foru Aldundiak prestatuko ditu.

Hamaikagarrena.- Ikuskapen lanetarako lankidetzak.

Foru Aldundiak nahiz Udalak ikuskapen planak elkarrekin edo elkarri lagunduaz egin ahal izango dituzte helburu, sektore eta jardunbide jakin batzuetarako. Ikuskapen planak hitzarmena sinatzen duten edozein alde eskatuta egingo dira.

Udalaren edo Foru Aldundiaren zerga ikuskapen edo kudeaketa zerbitzuek egindako egiaztatze edo ikertze jarduketan ondorioz, zergaren ikuspegitik Udalarentzat edo Aldundiarentzat garrantzitsuak izan daitezkeen egintzak agertzen badira, elkarri horien berri emango diote beren zerbitzupeko zehaztutako pertsonal teknikoaren bitartez.

Hamabigarrena.- Komunikatzeko beharra.

Ogasun eta Finantza Departamentuak eta Udalak elkarri jakinaraziko diote beraien arteko bitartekari lanetarako izendatu duten funtzionarioa edo organoa zein den. Bitartekariaren bitartez zerga alorrean ondorioak dituen eta laguntza teknikorako garrantzia duen eskatutako informazioa elkarri emango diote; bai eta, hitzarmenaren ondorioz, sortzen den informazioa eta korrespondentzia elkarri zentralizatu eta banatuko ere.

Hamahirugarrena.- Hitzarmenaren indarraldia.

Hitzarmen honek urtebeteko indarraldia izango du, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Hasierako epea amaitzerakoan urteko epea luzatuko da hitzarmenaren indarraldia, baldin eta bi instituzioetako organo eskudunek esanbidezko salaketarik egiten ez badute. Salaketa edozein unetan egin ahal izango dute, eta egin deneko dataren hurrengo ekitalditik aurrera izango du ondorioa, betiere beste alderdiari indarraldia amaitu aurreko azaroa baino lehen jakinarazten bazaio.

Bi aldeek adostasuna agertzeko eta behar bezala jasota gera dadin hitzarmenaren bi ale sinatzen dute hasieran adierazitako datan eta lekuan.

5.- ZARAUZKO UDALERRIKO KALE GARBIKETA ZERBITZUA KUDEATZEKO KONTRATUAREN PREZIOAK BERRIKUSTEA.

2009I1200001 espedientea

2009ko uztailaren 29an egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak erabaki zuen UTE FCC-SERBITZU enpresari adjudikatzea, behin-behinean, ZARAUZKO UDAL MUGAPEAN HIRI-HONDAKINAK ETA ASIMILAGARRIAK BILDU ETA GARRAIATU, KALEAK GARBITU ETA ANTZEKOAK EGITEKO ZERBITZU PUBLIKOA kudeatzeko kontratua, urteko 1.449.948,47 euroko prezioan (BEZ barne). Kontratua 2009ko irailaren 17an sinatu zen.

2010eko urtarrilaren 28an Alkatetzak emandako 0109 Dekreturen bitartez, Udalak jakin zuen enpresak izena aldatu zuela. Ordutik aurrera izena ZARAUZKO GARBIKETA UTE da.

Gerora, 2017ko abenduaren 28an egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak erabaki zuen ZARAUZKO GARBİKETA UTE enpresak eskaintzen duen zerbitzuaren kontratua aldatzea, eta aurrerantzean ZARAUZKO UDALERRIKO KALE GARBİKETA ZERBITZUA kudeatzea. Izan ere, 2018ko urtarrilean Urola Kostako Udal Elkarteak bere gain hartuko baitzuen zerbitzu honen ardura: *“Etxeetan sortutako etxeko hondakinak eta merkataritza eta zerbitzuetan eta industrian sortzen diren etxeko hondakinen antzekoak bildu eta garraiatzea”*.

2019ko urriaren 21ean, Herrilan, Azpiegitura eta Zerbitzuetako Departamentuak prezioen berrikuspenari buruzko txostena egin du (0816/2019 zk.).

Herrilan, Azpiegitura eta Zerbitzuetako Departamentuaren txostena ikusita eta Lurraldeko informazio-batzordeak hala proposatuta, Udalbatzarrak aho batez honako hau

ERABAKI DU

Lehen.- ZARAUZKO UDALERRIKO KALE GARBİKETA ZERBITZUA kudeatzeko ZARAUZKO GARBİKETA UTE enpresarekin sinatutako kontratuaren prezioak berrikustea, ondoren zehaztutako moduan (BEZ barne):

2019-2020 urtea (2019/09/17tik 2020/09/16ra)

ZERBITZUA	Aurreko berrikuspenen ondorengo gauzatze materiala	Berrikuspena 2018ko KPIaren % 85 (% 1,2) = % 1,02	Kontrata gauzatzea 2019 (GO+IO) = %10	Inbertsioak	Zerbitzuaren ustiapena	BEZ % 10	GUZTIRA (BEZ barne)
Kale garbiketa	891.292,69 €	900.383,87 €	990.422,26 €	75.249,77 €	1.065.672,03 €	106.567,20 €	1.172.239,23 €

Bigarrena.- 2019ko irailaren 17tik 2020ko irailaren 16ra arteko prezioak berrikusi ondoren, honako hau da ordaindu beharreko zenbatekoa (BEZ barne):

Kale garbiketa:	1.172.239,23 €
GUZTIRA	1.172.239,23 €

6.- ZARAUZKO UDALAREN JABETZAKO LOKALAK, ERAIKINAK ETA BIDE PUBLIKOKO ELEMENTUAK GARBITZEKO ZERBITZUAREN KONTRATUA ALDATZEA.

2017I120003 espedientea

2017ko ekainaren 29an egindako bilkuran, honako hauek onartu zituen Udalbatzarrak: a) ZARAUZKO UDALAREN JABETZAKO LOKALAK, ERAIKINAK ETA BIDE PUBLIKOKO ELEMENTUAK GARBITZEKO ZERBITZUAREN kontratazioa egiteko Administrazio-

klausulen Agiria eta Baldintza Teknikoen Agiria, eta b) kontratu hori prozedura ireki bidez adjudikatzeke deialdia.

Zegokion administrazio-espedita tramitatu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarraren 2018ko urtarrilaren 29ko akordioaren bidez, kontratu hori OHL SERVICIOS-INGESAN SA enpresari adjudikatzea erabaki zen. Kontratuaren baldintzak, gauzatze-epaia eta ordaintzeko modua lizitazioaren oinarri izan diren Administrazio-klausulen Agirian eta Baldintza Teknikoen Agirian adierazitakoak izango dira, eta adjudikaziodunak egindako eskaintzarekin bat etorriko dira. Kontratua 2018ko martxoaren 2an sinatu zen.

Orain, Herrilan, Azpiegitura eta Zerbitzuetako Departamentuak kontratua aldatzeko proposamena aurkeztu du, Udalak jarri dituen elementu berriak ere bertan sartzeko: alde batetik, Azken Portu Goiko igogailua, eta, bestetik, 3 komun autogarbigarri (Zelai Ondon, Pilartxo Enean eta Itsasertzeko pasealekuko Eremua gunean daudenak).

Lurraldeko informazio-batzordeak proposamena onartzearen aldeko irizpena eman zuen, 2019ko urriaren 17an egindako bileran.

Aurreko hori guztia kontuan hartuta, Udalbatzarrak aho batez honako hau

ERABAKI DU

Lehena.- ZARAUZKO UDALAREN JABETZAKO LOKALAK, ERAIKINAK ETA BIDE PUBLIKOKO ELEMENTUAK GARBITZEKO ZERBITZUAREN kontratua aldatzea, elementu berriak sartzeko, ondorengo baldintzen arabera:

- a) Elementu berriak: Azken Portu Goiko igogailua eta 3 komun autogarbigarri (Zelai Ondon, Pilartxo Enean eta Itsasertzeko pasealekuko Eremua gunean daudenak).
- b) Zerbitzuaren urteko kostua hurrengoak izango da:
Azken Portu Goiko igogailua: 1.394,94 euro BEZ barne (1.152,84 euro + 242,10 euro BEZ)
3 komun autogarbigarri: 4.184,81 euro BEZ barne (3.458,52 euro + 726,29 euro BEZ).

Bigarrena.- Adjudikaziodunak udaletxean agertu beharko du, ebazpen honen jakinarazpena jaso eta gehienez ere hurrengo bost laneguneko epean, kontratua dokumentu administratiboan formalizatzeko.

7.- 10-2 -OR SALBERDIN- AREAREN BIRPARTZELAZIO PROIEKTUKO R14 PARTZELA, LEHIAKETA BIDEZ SALTZEKO PROZEDURA ARAUTUKO DUEN ADMINISTRAZIO-KLAUSULEN AGIRIA.

2019HHH00005 espedita

Akordio-zirriborroa irakurri ondoren, proposamena eztabaidatu eta bozkatu dute. Bozketak emaitza hau izan du:

Botoak alde:	19	(10 EAJ-PNV, 7 EH Bildu, 2 PSE-EE)
Botoak aurka	–	
Abstentzioak:	1	(1 Podemos-Equo Berdeak)

Horrenbestez, adierazitako gehiengoarekin, Udalbatzarrak erabaki hau hartu du:

“10-2 -OR Salberdin- arearen Birpartzelazio Proiektuko R14 partzela besterentzeko espedientea hasi zuen Udalak.

R14 partzela udal lurzoru-ondarearen parte da. Bere xedea da babes publikoko etxebizitzak egitea: erregimen bereziko etxebizitza tasatuak (122 inguru) eta babes ofizialeko 3 etxebizitza.

Hirigintzako legediaren arabera, lurzoru-ondare publikoko ondasunen besterentzea, oro har, kostu bidez eta lehiaketaz egingo da.

Hori horrela, R14 partzela lehiaketa bidez saltzeko prozedura arautuko duen Administrazio-klausulen Agiria idatzi zen. 6.130.423 eurokoa da partzelari jarri zaion oinarrizko prezioa.

Idazkaritzako eta Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuko teknikariek espedienteari buruzko txostena egin dute.

Proposamena Lurraldeko informazio-batzordean eztabaidatu zuten.

Espedientea aztertu eta eztabaidatu ondoren, botoen gehiengoarekin, Udalbatzarrak honako hau

ERABAKI DU

Lehena.- 10-2 -OR Salberdin- arearen Birpartzelazio Proiektuko R14 partzela, lehiaketa bidez saltzeko prozedura arautuko duen Administrazio-klausulen Agiria onartzea.

Bigarrena.- Dagokion deialdi publikoa egitea.

Hirugarrena.- Nahitaezkoak diren gainerako izapideak betetzea, eta lizitazioa kontratatzailearen profilean eta prentsan argitaratzea.”

8.- ZARAUZKO HIRI ANTOLAMENDUAREN PLAN OKORRAREN ALDAKETA, 13-2 -OR IÑURRITZA- AREARI DAGOKIONA. BEHIN BEHINEKO ONESPENA.

2018H7000008 espedientea

Segidan, aztergai honi dagokion akordio-zirriborroa irakurri du idazkari andreak. Amaieran, proposamena eztabaidatu eta bozkatu dute. Hona hemen emaitza:

Botoak alde	17	(10 EAJ-PNV, 7 EH Bildu)
Botoak aurka	3	(2 PSE-EE, 1 Podemos-Equo Berdeak)
Abstentzioak	—	

Horrela, bada, adierazitako gehiengoarekin Udalbatzarrak erabaki hau hartu du:

“Udalbatzarrak, 2019ko urtarrilaren 31ko osoko bilkuran, hasierako onespena eman zion 13-2 -OR Iñurritza- areari dagokion Zarauzko Hiri Antolamenduaren Plan Orokorraren aldaketari, hainbat baldintzarekin.

Espedientea ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozeduraren mende dago.

Hasierako onespeneren ondoren, udal plangintzako aholku batzordea elkartu eta 2019ko otsailaren 13ko bileran eztabaidatu zuten hirigintza-proposamena.

Espedientea jendaurrean egon zen 45 eguneko epean. Alegazio idatzi bat aurkeztu zuten (Irabazi Zarautz, apirilaren 11n).

Txostenak eskatu eta kontsultak egin zitzaizkien eragindako administrazio publikoei eta elkarte interesdunei (guztira 13). Honakoek erantzun zuten:

- Foru Aldundia. Bide Azpiegiturak. (otsailak 25 eta apirilak 30)
- Eusko Jaurlaritza. Kultura Ondarea (martxoak 12)
- Arkamurka Natura Elkartea (martxoak 18)
- Eusko Jaurlaritza. IHOBEn (martxoak 22).
- Eusko Jaurlaritza. Osasun Publikoa (martxoak 26)
- Eusko Jaurlaritza. Natura Ondarea eta Klima Aldaketa (apirilak 3)
- Eusko Jaurlaritza. URA (maiatzak 9)
- Eusko Jaurlaritza. Eusko Trenbide Sarea (irailak 17)
- Espainiako Gobernua. Kostaldeko eta Itsasoko Jasangarritasuna (azaroak 11).

Jendaurreko epea amaitu ondoren, dokumentuaren talde egileak, Hirigintza eta Ingurumen Departamentuarekin elkarlanean, behin-behineko onespenerako dokumentua idatzi zuen, bertan jasotzeko Udalak hasierako onespenera ezarritako baldintzak, eta baita jasotako txosten sektorialetan bildutakoak ere.

Arkamurka Natura Elkartearen kasuan, ez da aintzakotzat hartu Eguzki izarra gunea ez urbanizatzeko eskaera, baina bai aztertu zen ingurumen agiri estrategikoaren antolamenduko alternatiben artean (2. alternatiba). Baztertu egin zen pentsatu zelako haren bideragarritasun teknikoa txikia zela, eta bideraezina zela ekonomikoki; ingurumen aldetik gehiegizko egintzat jo zen, ahalegina handia egin arren, ez duelako konponduko biotopoaren eta Asti eta Iritako hezeguneen arteko jarraipen naturala.

Edonola ere, ingurumen agiri estrategikoak sakon aztertu ditu talde ekologistak nabarmendu zituen ingurumeneko gaiak, esaterako, Iñurritza errekaen ertzak leheneratzea, edo hegazti-faunan eta biotopoen egon daitekeen eragina.

Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuak dokumentuari eta alegazioari buruzko txostenak egin zituen.

Espedientea Lurraldeko informazio-batzordean eztabaidatu zuten.

Espedientea aztertu eta eztabaidatu ondoren, 17 zinegotzik alde bozkatuta eta, beraz, legezko gehiengo osoaren "quorum"arekin, Udalbatzarrak honako hau

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Irabazi Zarautz udal talde politikoak aurkeztu zuen alegazioa gaitzestea.

Gaitzespena talde egileak eta Hirigintza eta Ingurumen Departamentuak egindako txostenetan oinarritu da; txosten horiek alegazio-egilearen esku jarri ziren akordio hau hartu baino lehen.

Bigarrena.- Behin-behineko onespena ematea Zarauzko 13-2 -OR Iñurritza-areari dagokion Zarauzko Hiri Antolamenduaren Plan Orokorren aldaketari.

Behin-behinekoz onartu den planak 2019ko urriko data dauka, eta Izaskun Larzabal arkitektoak zuzendutako lantaldeak idatzi du Honako agiriak ditu:

1. Informazio eta justifikazio memoria, 7 eranskin gehigarri eta guzti.
2. Hirigintzako antolamendua (arauak eta planoak)
3. Bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioko azterlana
4. Ingurumen agiri estrategikoa, 6 eranskin gehigarri eta guzti.

Hirugarrena.- Onartutako ingurumen agiri estrategikoa Eusko Jaurlaritzako ingurumen-organoari bidaltzea, plan orokorra aldatzeko proposamenari ingurumen adierazpen estrategikoa eman diezaion.

**– UDAL TALDEEK JOKO ETA APUSTUEN LOKALEI BURUZ
AURKEZTUTAKO PROPOSAMENAK**

9.- EH Bildu eta Podemos-Equo Berdeak udal taldeek: Klima aldaketaren aurka konpromiso zehatzak hartzeko mozioa.

2019O0010013 espedientea

10.- EAJ-PNV udal taldeak: Larrialdi klimatikoari buruzko mozioa.

2019O0010017 espedientea

Aztergai honetara iritsita, udal talde aurkezleek atzera egin eta aurkeztutako mozioak erretiratu dituzte gai-zerrendatik. Izan ere, mozio horien ordez, udal taldeek adostu baitute alkate jaunak irakurritako honako ADIERAZPEN INSTITUZIONALA:

**AUSAZKO JOKO ETA APUSTUEN NEGOZIOTIK HERRITARRAK
BABESTEKO NEURRIA ESKATZEA**

1. Zarauzko Udalbatzak gobernu-taldeari eskaera hauek egiten dizkio:
 - a. Aztertzea eta ezartzea, beren eskumenek ahalbidetzen duten neurrian, eta erabateko berme juridikoekin, apustu eta ausazko jokoen publizitatea ikus-entzunezkoetan eta Udalerrian edo Udal guneetan egiten diren jardueretan debekatzea, haur, nerabe eta gazteek jaso ditzaketenean bereziki.
 - b. Onartuta dugun Adikzioen Prebentziorako Zarauzko tokiko planari jarraituz, ludopatiaren aurkako sentsibilizazio-kanpainak egitea arazo honetan lanean ari diren tokiko erakundeekin elkarlanean eta diagnostikoan sakontzea.
 - c. Udalaren gaitasunek ahalbidetzen duten neurrian, ausazko joko eta apustu lokalen kokapena arautzea eta horien kopurua mugatzea Hirigintza-plangintzaren bidez, bereziki haur eta nerabeen aisialdi zerbitzu, osasun zentro eta ikastetxeetatik gertu egotea ekiditeko.
2. Estatuari honako hau eskatzen diogu:
 - a. Adin txikikoen sarrera mugatu ditzaketen neurri teknologiko eraginkorrak on-line apustu eta ausazko joko plataformetan ezartzea legez behartzea.
3. Zarauzko Udalbatzak Eusko Jaurlaritzari eskaera hauek egiten dizkio:
 - a. EAEko joko arautzen duen azaroaren 8ko 4/1991 Legea alda dezala, populazioa-dentsitate handieneko zonetan joko eta apustuarako lokalen kontzentrazioari galga jartzeko xedez eta haur eta nerabeen aisialdi zerbitzu, osasun zentro eta ikastetxeetatik egon behar duen distantzia aztertu eta handitzeko aukera hausnar dezala.

- b. Gara dezala EAJ, PSE eta EH Bilduk Eusko Legebiltzarrean hitzartutako substantziarik gabeko adikzioak aztertu eta aurre egiteari buruzko 4/2019 erdibideko zuzenketa.

– UDAL TALDEEK BOLIVIARI BURUZ AURKEZTUTAKO PROPOSAMENAK

11.- EH Bildu udal taldeak: Boliviako Estatu Kolpearen aurrean.

2019O0010014 espedientea

12.- EAJ-PNV udal taldeak: Bolivia.

2019O0010016 espedientea

Gai honen inguruan, halaber, udal talde aurkezleek hasierako mozioak erretiratu egin dituzte gai-zerrendatik. Ondoren, hasierako haien ordeztuz, EAJ-PNV, EH BILDU, PSE-EE eta PODEMOS-EQUO BERDEAK taldeek elkarren artean adostutako beste mozio hau aurkeztu dute:

– EAJ-PNV, EH BILDU, PSE-EE eta PODEMOS-EQUO BERDEAK UDAL TALDEEK ADOSTUTAKO MOZIOA

Udal talde guztiek aurkeztutako mozio hau irakurri du idazkari andreak:

Bolivia

Jakitun gara 21016an Evo Moralesek, hirugarren aldiz presidente izateko erreferenduna galdu zuela eta ondoren Boliviako epaitegi konstituzionalak, hirugarren aldiz aurkezteari bide eman ziola, oso eztabaidatua izan zen erabaki batean. Azken hauteskundeetan, Amerikako Estatu Erakundeak (AEE) irregulartasunak somatu zituen eta bigarren itzuli bat egiteko gomendioa egin zuen. Honen aurrean, Evo Moralesek, hauteskundeak errepikatzeko prestutasuna adierazi zuen. Honek guztiak ez du inolaz ere justifikatzen ordurako martxan zegoen estatu kolpea.

Azaroaren 10ean Boliviako Estatu Plurinazionalako Presidente Evo Moralesek bere dimisioa aurkeztu zuen, poliziek eta militarrek behartuta. Dimisioa eman baino lehen Morales presidenteari, bere gobernuko kideen eta Boliviako beste hainbat hautetsien senideen kontrako erasoak eman ziren.

Estatu Kolpe honen ondorioz, egoera benetan larria da eta konfrontazio zibilerako arriskua handia dela azpimarratu nahi dugu, izan ere estatu kolpea bultzatu duten indarrek errepresioarekin erantzuten ari zaizkio Moralesen alde antolatutako herritarrei.

Egoera honen aurrean, Zarauzko udalak:

- Gogor salatzen du Bolivian ematen ari den estatu kolpea.
- Moralesen kontra altxatu direnei eskubide zibil eta politikoen errespetua eta gatazka negoziazio eta akordioaren bidez konpontzera dei egiten die, eta Estatu Kolpe honen kanpo-bultzatzaileei injerentzia gelditu eta Boliviako soberania errespetatzera deitzen ditu.
- Gure babesa adierazi nahi diogu Boliviako herriari, demokraziari eta etorkizuna modu baketsuan eta interferentziarik gabe erabakitzeko eskubideari.
- Hauteskunde garbi eta demokratiko berriak deitzeko eskatzen du.
- Herritarrei dei egiten die Estatu kolpe honi aurre egiteko antolatzen diren mobilizazioetan parte hartzera.

Udal talde bakoitzak bere iritzia eman ondoren, proposamena bozkatu dute. Hona hemen emaitza:

Botoak alde:	20	(aho batez)
--------------	----	-------------

Beraz, bertan dauden 20 zinegotziek alde bozkatuta, Udalbatzarrak transkribatutako mozioa onartzea ERABAKI DU.

13.- EAJ-PNV eta EH BILDU UDAL TALDEEK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA:

– Armada espainiarraren agerpena Zarauzko hondartzan.

2019O0010015 espedientea

Segidan, EAJ-PNV eta EH BILDU udal taldeek auarkeztutako proposamena irakurri du idazkari andreak. Hona hemen testua:

ARMADA ESPAINIARRAREN AGERPENA ZARUZKO HONDARTZAN

1. Zarauzko Udalak adierazten du armada espainiarrak, Zarauzko hondartzan egindako agerraldia arrotza eta mehatxagarria dela; eta horrelako agerraldiek egonezina sortzen dutela Zarauztar eta euskal herritar gehienengan.
2. Zarauzko Udalak baztertu egiten du indarrean legez eta legearen indarrez Zarautzen eta euskal gizartean egin diren honetako agerraldi militarrek, eta gaitzetsi armada espainiarra gure herri eta egoitza enblematikoetan ikustea euskal gizartean ohikotzat hartzeko eta normaltzat onartzeko estrategia, herri honekiko eta euskal herritarrekiko inposaketa eta errespetu eza direlako.

3. Zarauzko Udalak azpimarratzen du Euskal Herriaren normalizazio politikoaren aurka doazela Espainiako Armadaren ibilera hauek, zarauztar eta herri-ordezkarri gehienen nahiarekiko errespetu falta direlako eta askatasunez erabakitze eskubidea ukatzea suposatzen dutelako.
4. Zarauzko Udalak aldarrikatzen du Euskal Herriaren herri eskubideak eta euskal izatea zaindu eta defenditzeko duten eginbeharra zintzo eta irmo beteko dutela bide baketsu, politiko eta demokratikoetan ibiliz, gure eskubide historikoekin lotuta, eta XXI. mendeko demokrazia heldua eta duina izatea erabakita eta hala adierazten dute leialtasuna zor dieten zarauztarren aurrean.
5. Zarauzko Udalak bere ekitaldi ofizial eta ordezkariak publikoko jardueran, ebazpen honen edukiarekin koherentziaz jokatu du.
6. Gertakari honi buruzko azalpenak emateko eskatzen diogu Espainiako Estatuari, eta horrelako erakustaldirik berriro ez egiteko exijitzen diogu.

Gaia eztabaidatu ondoren, proposamena bozketan jarri dute, eta emaitza hau izan du:

BOZKETA

Botoak alde:	18	(10 EAJ-PNV, 7 EH Bildu, 1 Podemos-Equo Berdeak)
Botoak aurka:	2	(2 PSE-EE)
Abstentzioak:	—	

Horrenbestez, adierazitako botoekin, Udalbatzarrak ERABAKI DU EAJ-PNV eta EH BILDU udal taldeek aurkeztutako mozioa ONARTZEA.

14.- ESKARI-GALDERAK.

Gai-zerrendako puntu honetan gai hauek izan dituzte hizpide:

- **Etxaburu** jaunak, Aldapetako etxebizitzaren kostuari eta bideragarritasunari buruz, gogora ekarri du 2010eko urriaren 15ean Zarautz-Lurreko kontseiluak egindako bilkuran galdetutakoa: “Mendiari eutsiko dion pantaila-horma (hustu ondoren) urbanizazio proiektuan sartzen bada eta proiektu hori eraikuntza proiektutik kanpo baldin badago, nork hartuko ditu bere gain balizko gailuzkoak?”, Eta horren inguruko informazioa eskatu du.
- **Alkate** jaunak erantzun dio 2015ean Udalak eta VISESAk sinatutako hitzarmenean argi geratu zuela: hain zuzen ere, urbanizazioari zegozkion kargak Udalak bere gain hartuko zituela, eta eraikuntzari, obra zibilari zegozkion kargak VISESAk jasoko zituela.

Eta aztertzeko besterik ezean, batzarburu jaunak osoko bilkurari amaiera eman dio, iluntzeko bereatziak eta hamarrean; eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.